



MUSIKA

# Amalgamaren edertasuna



JUANTXO EGARVA

**Fitxa:** Euskadiko Orkestraren abonukontzertua: *Handiena*. Zuzendaria: Robert Treviño. Egitaraua: Gerenabarrena eta Brucknerren lanak. Lekua: Donostiako Kursaal Auditorioa. Data: abenduaren 9a.

## MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

**E**uskadiko Orkestraren azken abonukontzertuan, *Handiena* izenekoan –programa osatzen zuten bi obrei erreferentzia eginez– estiloen kontrajarritasuna eta soinu-bizipenen aurkakotasuna izan zen, zalantzarik gabe, topaketaren gauzarik erakargarriena.

Hasteko, *Elkano: Mundubira musika bidelagun* proiekturako enkarguzko azken obra entzuteko aukera izan genuen. Proiektu hau, lehenengo zirkunabigazioaren –handiena hain zuzen ere– 500. urteurrena ospatzeko, Mikel Chamizo, Mikel Urquiza, Joel Merah eta Teresa Catalanen obrek osatu dute. Oraingoan, zikloa ixteko lana Zuriñe Gerenabarrenaren *Lorraz* izeneko pieza izan da. Tinbrika eta testura iradokitzailez betetako lana da. Konpositoreak berak adierazi zuen bezala, esplorazioz eta sentipenez betetako partitura da. Lan honek "aur-

kikuntza" zaporea uzten du. Elkanok, zalantzarik gabe, esperimentatu egingo zuen sentsazio hori. Euskadiko Orkestrak lan delikatua egin zuen, musikaren ehundurak destakatuz, eta sonoritateen argitasuna eta gardentasuna izan zen ezaugarri nabarmenena.

Jarraian, hasierako lan labur honen ondoren, obra "handiena" iritsi zen, izugarria esanenez bere tamainagatik. Hain zuzen ere, Anton Brucknerren zortzigarren Sinfonia, 80 minutuko iraupenarekin, musikaren historiako sinfonia handienetako bat da.

Obra handi hau konpositorearen nahigabeen eta segurtasunik ezaren emaitza izan zen. Zazpigarren sinfoniaren arrakastaren ondoren, zortzigarren sinfonia hau Brucknerrek gehien miresten zuen orkestra zuzendarietako batek, Hermann Levik, baztertu zuen. Horrek izugarrizko

tristura eta depresioa ekarri zizkion. Baina, austriarrak, bere lanean adoregabetu beharrean, etengabe hobetu eta aldatu zuen obra, Levik helarazitako kritikak kontuan hartuta. Azkenik, Vienan estreinatu zuen obra 1892ko Gabonak baino lehen. Eta arrakasta izugarria izan zen. Obra wagneriarra da bere sonoritatean, baina bere arkitektura Beethovenengandik dator, bere bederatzigarren Sinfoniatik nabarmenago.

Gerenabarrenaren obraren kasuan bezala, Euskadiko Orkestrak, Robert Treviñoren zuzendaritzapean, lan zehatza egin zuen sonoritatearen ikuspegitik eta baita psikologiaren ikuspegitik ere, mugimendu sinfoniko bakoitzean sentitzen diren *mood*-ak birsortzen jakin baitzuen. Bereziki azpimarratuko nuke Adagio-an lortutako giroa, gordin eta lazarri gertatu baitzen bertsio interesgarri honetan. ●